

**XI. EUSKAL HERRIKO
ESKULANGINTZA AZOKA**

**XI FERIA DE ARTESANIA
DEL PAIS VASCO**



KATALOGOA - CATALOGO

EREINTZA ELKARTEA - ERRENTERIA

Año 1.989 Urtea

XI. EUSKAL HERRIKO
ESKULANGINTZA AZOKA

XI FERIA DE ARTESANIA
DEL PAIS VASCO

EREINTZA ELKARTEA - ERRENTERIA

KATALOGOA

CATALOGO

AÑO 1.989 URTEA

XI. EUSKAL HERRIKO ESKULANGINTZA AZOKAREN EGITARAUA

ERAKUSKETA

BURDINA

BURDINGINTZA ETA FORJAKETA TRADIZIONALA

Herriz herri ibiltzeko prestatutako erakusketa honek, Gipuzkoako Foru Diputazioak oraindik berriki Manuel Laborde Werlinden Jn. ari erositako 1800 piezeen artetik aukeratuak jartzen ditu ikustera gehienbat, gero Ignazio M.^a Atxukarro, Fermin Leizaola, Manuel Izagirre eta Konstantino Sagastumeren bildumetatik hautatutako beste hainbat piezarekin osatuta.

Erakustera jarritako piezak 450 dira gutxi gorabehera eta hamaika taldetan banatuak daude, zertan erabiltzen ziren edo zertarako sortuak izan ziren kontutan hartuz: nekazaritza, abelazkuntza, basolaritza eta ikazkintza, errementeriak, erremintak eta harlangintza, ferratzaileak eta gurdingileak, sarrailak eta iltzeteria, ebaki edo mozteko tresneria, sukaldeko tresneria, erlijiozko gauzak, pisuak eta neurriak, argikuntzako sistemak.

Eratzaile: Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kultur Departamentua.

Laguntzaileak: Errenteriako Udalaren Kultur Batzordea
"Xenpelar" Plastika Arteen Udal Tailerra.

PROGRAMA DE LA XI FERIA DE ARTESANIA DEL PAIS VASCO

EXPOSICION

HIERRO

HERRERIA Y FORJA TRADICIONAL

Esta exposición, de carácter itinerante, muestra en su mayor parte una selección de entre las 1800 piezas adquiridas recientemente por el Departamento de Cultura de la Diputación Foral de Guipúzcoa a D. Manuel Laborde Werlinden, ampliada con piezas de las colecciones particulares de D. Ignacio M.^a Achucarro, Fermín Leizaola, Manuel Izagirre y Constantino Sagastume.

Las piezas expuestas suman alrededor de 450 y han sido agrupadas en once grupos atendiendo al uso y función para la que fueron creadas: agricultura, ganadería, leñadores y carboneros, herrería, herramientas y cantería, herrador y carrero, cerrajería y clavazón, elementos cortantes, útiles de cocina, objetos religiosos, pesos y medidas, sistemas de iluminación.

Organiza: Departamento de Cultura de la Diputación Foral de Guipúzcoa.

Colaboran: Comisión de Cultura del Ayuntamiento de Rentería.
Taller Municipal de Artes Plásticas "Xenpelar".

PARTE HARTURIKO ARTISAUAK

ARTESANOS PARTICIPANTES

ZURA - MADERA

ARGIZAIOLAK, KUTXAK, ATABAKAK...

(Talla tradicional vasca)

- Carmelo Boneta (Lizarra)
- Fermín Anda (Bakaikoa)
- *Larrañaga Anaiak (Elorrio)
- Antton Mendizabal (Oiartzun)

IRUDIAK, HAUSPOAK, KUTXATILAK...

(Talla diversa)

- Ricardo Etxeberria (Abaltzizketa)

HALTZARIGINTZA (Artesanía del mueble)

- *Gurea Haltzariak (Baigorri)

UZTARRIAK (Yugos)

- Saturnino Vidan
(Ulibarri-Harana)

EZPEL ZALIGINTZA (Cucharería de boj)

- Marcos Saragüeta (Mezkiritz)

OTARGINTZA ETA BELARKI ZUNTZAK CESTERIA Y FIBRAS VEGETALES

GAZTAIN ZUMITZEZKO OTARGINTZA (Cestería de fleje de castaño)

- Juan Unzueta (Durango)
- *Jose Luis Etxeberria (Azpeitia)

ZUME OTARGINTZA (Cestería de mimbre)

- Izazkun Basoa (Basauri)

ARTO ALFONBRAK (Alfombras de maíz)

- Jose Miranda (Balterra)

MASKARAK, BURUHAUNDIAK. (Artesanía en papel maché)

- *José Luis Alvarez ^{M3}
eta Javier Murillo (Iruñea) ^{M4}

ENKOADERNAKETA (Encuadernación)

- *Elena Aberasturi (Donostia)
- *Cristina Aracama (Gasteiz)

MUSIKATRESNAK INSTRUMENTOS MUSICALES

DULTZINAK, XANBELAK (Dulzainas y xanbelas)

- "EZPELAR" Iruñeako
Dultzineroak (Iruñea)

DULTZINA ATABALAK, MAKILAK (Atabales para dulzaina y baquetas)

- Tolosako Dultzineroak (Tolosa)

PIANOAK, KLABEZINAK, BIOLAK (Instrumentos de cuerda)

- Javier Arg aiz (Donostia)

BURNI ETA METALKIAK HIERRO Y METALES

KUPRE ETA LETOINEZKO TRESNAK, BURDINLANTZA ARTISTIKOA (Cacharros de latón y cobre, forja artística)

- Jesus Juanto (Zangotza)

XIXEL GRABAKETA (Grabado a buril)

- Pedro Azpiazu (Elgoibar)

DAMASKINTZA (Damasquinado)

- Ex-Alumnos Escuela
damasquinado de Eibar.

LURRA ETA ANTZEKOAK TIERRA Y AFINES

BUZTINGINTZA (Alfarería)

- Gregorio Aramendi (Zegama)
- Blanca Gómez de Segura
(Gasteiz)

KERAMIKA (Cerámica)

- Moncho Ruiz Cabestany
eta Marta Berraondo (Iribas)

BEIRA TAILAKETA (Talla de Vidrio)

- Jose Ramon Tabar (Iruñea)

PORTZELANAREN DEKORAKETA (Decoración de porcelana)

- *Carlos San Martín eta
F. Ramajo (Irun)

OHIALKI ETA LARRUA TEXTIL Y CUERO

GORUETA, GALTZERDIAK (Hilado y calcetines de lana)

- Castora Agesta (Etxalar)
- Joseba Gastiain (Urretxu)

BOLILLOAK (Encajes de bolillo)

- Quiteria Millán (Errenteria)

SAREGINTZA (Redería varia)

- Dionisio Usarraga (Hernani)

MARINEL ESKULANGINTZA (Nudos marineros)

- Eduardo Lorenzo (Errenteria) ^{M2}

ZAHATOGINTZA (Botería)

—Juan José Etxarri (Iruñea)

**LARRUZKO PILOTAK
(Pelotas de cuero)**

*—Juan Morales (Tolosa)

**ERREBOTEKO GOANTEAK
(Guantería de frontón)**

—Florentino Ibarra (Labaien)

**ABARKAK, POLTSOAK,
GERRIKOAK...**

(Artículos diversos en cuero)

—Eduarne Garate (Bilbo)

**HAINBAT ESKULAN
ARTESANIAS VARIAS****TXONTXONGILOAK
(Marionetas)**

*—"MENINA" Taldea (Hondarribia)

**PANPINA ZAHARREN
ESKULANGINTZA**

(Artesanía de muñecas antiguas)

*—M.^a Eugenia Ruiz (Gasteiz)

**MAKETAGINTZA
(Maquetismo)**

—Lander Urkia (Errenteria)

**ITSASUNTZIAK BOTEILETAN
(Barcos en botellas)**

—Jose L. Fernández de Eribe
(Bilbo)

**ELIKADURA
ALIMENTACION****ARGIZAIGINTZA (Cerería)**

—Fermin Azkarate (Tolosa)

**EZTIA, ERLAUNTZAK
(Miel y colmenas)**

—Joxe Albizu (Zegama)

GAZTAK (Quesos)

—«Benetako Gazta» Elkarte

**TXORIZUAK, TXISTÓRRAK,
PATEAK
(Charcutería artesanal)**

*—Cornelio Iribarren (Errenteria)

OGIA (Pan)

—Paulo Azkoaga (Orozko)

TALOAK (Talos)

—Loiarte-Elizalde Sendia
(Zubieta-Nafarroa) 46

**KONFITERI PRODUKTU
JATORREN SALMENTA
(Venta de productos típicos de
confitería)**

**ARTISAU ETA LANGINTZEN
BERRI-LABURRAK****RESEÑAS DE ARTESANOS
Y ESPECIALIDADES**

*OHARRA: * Ikurra ez daramaten artisuen
berri-laburrak ez dira Katalogo honetan agertzen;
izan ere aurreko Azoken Katalogoetan
sarturik bait daude.*

*Nota: Los artesanos que no llevan asterisco
no aparecen reseñados en el presente Catálogo,
al estar incluidos ya en
los Catálogos de Ferias anteriores.*

Artisauak / Artesanos:
FERNANDO eta FELIX LARRAÑAGA

Jaioteguna: / Fecha de nacimiento:
1959, Maiatzak 28 - Elgeta (Gipuzkoa)
1960, Ekainak 28 - Elgeta (Gipuzkoa)

Helbidea: / Domicilio:
(Tailerra)
Kapelastegi Arkitektua, 12-behea
ELORRIO (Bizkaia)

Telf. 682.49.86 - 682.09.96

Aurkezpen gisa:

Gisa honetako eskulangintzarako afizioak nor bere kabuz ikastera bultzatzen ditu. Txoferra zen Fernando eta Felix elektrizista. Pazientzia haundiz tailagintza ikertzen dute, diseinu eta abar aztertzen. Donostiako San Telmo Museoa eginiko bisitaldietan materialak begiz jo eta ideiak lantzen dituzte. Haseran, heraminta egokirik ez zutela eta, fruta kaxa materialaz baliatzen dira hondoaren kontra marruskatu eta neurritan jarri. Taila boligrafoaren tubo ertzean kutxila ipiniz lortzen dute.

Lehenaldi hura igaro eta gero Elgetan, sorterrian, jartzen dira lanean. J. M. Arriaga markinarraren gidaritzapean, taila gizona zen hau, tailagintzaren teknikak, prestaketak, koloreak, diseinuak eta abar menderatuko dituzte.

1989 urtean Elorriora jotzen dute eta lantegia bertan ipintzen. Berrizko Anastasio Gorritxategiren erakutsiak jasoz, orma ordularientzako kaxak prestatzen dituzte.

Gaur egun orain arteko lanekin batera tailagintza eta berorren irakaskuntza lantzen dute. Bere lanak, Azoketan eta tailerrean bertan jasotako enkarguen bidez saltzen dituzten.



Otros datos:

La gran afición por este tipo de trabajo artesanal les empuja a iniciarse en estos trabajos de forma autodidacta. Fernando era chofer y Félix electricista. Con gran paciencia van investigando sobre la talla, diseño, etc... En diferentes salidas al museo San Telmo, van viendo materiales y tomando ideas. Los inicios, a falta de herramientas, los hacen con tablas de cajas de fruta, a las que van dando forma desgastándolas contra el suelo. Las tallas las ejecutaban con una cuchilla sujeta al tubo de un bolígrafo.

Después de esta primera etapa se instalan en Elgeta, su pueblo natal. Asesorados por J. M. Arriaga, tallista de Markina, comienzan a perfeccionar las técnicas de elaboración, teñido, cortes, motivos, etc...

En 1989 se instalan de forma estable en Elorrio y con las enseñanzas de Anastasio Gorritxategi de Berriz, comienzan la elaboración de cajas para relojes de pared.

Actualmente combinan sus trabajos anteriores con el de la talla y su enseñanza. Venden sus productos a través de la ferias y mediante encargos en su propio taller.

TAILAKETA (KUTXAK)

Kutxa izan zen Euskal Herrian etxeko haltzari estimatuena eta erabiliena, kutxa, gordailu edo mahaia bait zen aldi berean. Aintzin aro klasikoan ezaguna zen, koadrangularra formaz, sendoa, era arruntean dekoratua, lau oinen gainean finkatua. Gainkaldetik irekitzen zen tapa gontzaren inguruan mugituz.

Ohizko kutxak apaintzeko iruditeria geometrikoak badu zenbait hilarriekin zer ikusirik. Beste batzuk Ortzi-gerriaren zeinuak dituzte go-goan, zerua oroitaraziz. Bestetan lanbide zenbatekin zer ikusirik duten tresneria, eta abar.

Gure guraso edo aitonen garaian kutxetan maindireak eta familiako jantzi zuri hoberena gordetzen zen kutxaren barruan etxekoandreak arreta haundiz jartzen zuen sagarrez usaindua. XIV. eta XV. mendeeko usadioei jarraiki, zeinetan senargaiak ezkontza bezperan eztai kutxa igortzen bait zion andregaiari, haltzariak egiten ziren ezkontide berrientzat ertzetan, kutxaren aieketan senar-emazteen izenak tailatuz eta baserriaren data oroigarria jasoz.

TALLA TRADICIONAL VASCA (KUTXAS)

La kutxa fue en el País Vasco el mueble doméstico más apreciado y más usual, pues sirvió de cofre, armario y mesa. Ya era conocida en la antigüedad clásica, de forma cuadrangular, construcción robusta, sencillamente decorada, descansando sobre cuatro pies o grifos y cuya tapa se abría por las charnelas.

Los motivos geométricos que adornan las tradicionales kutxas, tienen relación con las estelas discoidales que se encuentran en algunas sepulturas. Algunas tienen signos del Zodíaco, que, indudablemente, indican el cielo, otros objetos inherentes a ciertas profesiones, etc...

En los hogares de nuestros padres o abuelos se guardaban en las kutxas las sábanas y la mejor ropa blanca de la familia, aromatizando el ajuar con el perfume de manzanas que depositaba, cuidadosamente, la etxekoandre dentro del arca, como continuación de la costumbre, en los siglos XIV y XV, de que el novio enviase a su prometida la víspera del enlace matrimonial un arcón llamado "arca de la novia", construían muebles para los nuevos matrimonios, haciendo tallar en los costados de la kutxa los nombres de los esposos y la fecha memorable del caserío.

Erakundea:
GUREA HALTZARIAK KOOPERATIBA

Sorteguna: / Fecha de fundación:
1985 urtea

Helbidea: / Domicilio:
Harri Eder,
64430 Saint-Etienne de Baigorri
BAIGORRI (Nafarroa Behera)

Telf. 59.37.46.77



Otros datos:

La cooperativa Gurea surge de la unión de quince talleres que trabajan de forma conjunta en la confección de muebles. Cada taller se dedica a un tipo particular de mobiliario o a una parte concreta de ellos. Todo ello está dentro de un proceso que acaba con el montaje y tintura de los muebles en Baigorri, desde donde se envían para su venta. También en Baigorri está la serrería donde se cortan y distribuyen las materias primas a los diferentes talleres.

En esta localidad existe una gran tradición en el trabajo de la madera, tanto en muebles como para la construcción. El cambio de usos y costumbres ha traído una disminución del trabajo. Como consecuencia de ello surge la idea de la cooperativa, como salida a esta situación, y a la vez como ejemplo de una salida evolucionada de la artesanía tradicional.

HALTZARIGINTZA

Ezagunak dira espainiar zein frantziar azokatan "euskal estilo" deituriko haltzariak, iraganaren baitan errotuak, molde simetrikotan, zuzenezko, kurbo edota bietariko dibuxoz, eskoadra eta konpasez marraztutako lanez, osaturikoetan emanak. Kutzak, mahaiak, aulki eta egurrezko eserlekuak ongi apainduak. Taila lanak, ordea, egunero tresnerian aurki daitezke, hara nola sukaldekoetan (gaztain-otzara, burkila, eta abarretan), lanerako tresnetan, uztarriak adibidez, eta baita abe eta etxe zaharretako zenbait elementuetan.

Iparraldean beste lurraldeetan baino gehiago landu da arlo hau, batez ere ikuspegi apain eta dekoratzaileari begira. Elementu zuzenkiak aipatzekotan ikus daiteke xake-taula gisakoak, zuzenean irudikatutako triangeluak, lau triangeluetan banatutako karratuak, bi triangeluetan banatutako errektangeluak. Dekorazioaren oinarria da marra borobila. Borobilaren zati banaketa nolakoa dekorazioa halakoa, bitan, lautan, sei edo zortzi zatitan bana daiteke eskoadraz, konpasez edo bi lanabesok erabiliz, bana daiteke.

Inoiz molde geometriko hauek alde batera utzi eta, inongo jakineko neurritara mugatu gabe, marraren inguruko apaingarriak landuko ditu artista herritarrak askatasunez jokatuz. Hauen sailekoak dira apaingarri kiribilduak, era berezietan marraztuak, Iparraldean landuak, interpretazio sinbolikoen ikuspegiatik miretsiak.

ARTESANIA DEL MUEBLE

Son conocidos en el mercado español y francés los muebles de "estilo vasco" que se ajustan a normas tradicionales, adornados con motivos simétricos, rectos, curvos y compuestos, trazados con frecuencia con escuadra y compás. Kutzas, mesas, sillas y bancos de madera, se adornan con profusión, pero no faltan tallas en piezas más menudas del ajuar doméstico (queseras, rucacas, etc...), en aperos (yugos), ni tampoco en las vigas y elementos de las viejas mansiones.

En el País Vasco-Francés (Iparralde) se ha estudiado este arte más atentamente que en otras partes, sobre todo en su faceta decorativa. Como elementos decorativos rectilíneos podemos contar con el ajedrezado en franjas no muy anchas, los triángulos en serie lineal, los cuadrados divididos en cuatro triángulos, o los rectángulos divididos en dos triángulos. Estos elementos surgen según se divida la circunferencia, base de un dibujo decorativo, en dos medias circunferencias o por cuatro, seis, ocho o más partes, y se emplee sólo la escuadra, sólo el compás, o los dos al hacer tal división.

A veces el artista popular abandona éstos motivos geométricos, condicionados por medidas fijas, y se lanza a trazar adornos lineales con un poco más de libertad expresiva. Así surgen los ornamentos en forma de espiral y los que ostentan una forma particular de "coma" (virgule), muy típicos vasco-franceses, como los rosetones y otros muchos a los que se les ha dado interpretaciones simbólicas.

Artisaua/Artesano:
JOSE LUIS ETXEBERRIA ITURRALDE

Jaioteguna: / Fecha de nacimiento:
1954, Ekainak 30 - Noarbe

Helbidea: / Domicilio:
Euskal Herria Kalea, 53-1.º ezk.
Tailerra: Erreiru Baserria
AZPEITIA (Gipuzkoa)

Telf. 81.09.06



Aurkezpen gisa:

Aspaldidanik gaztainondo gaiez landutako otargintzan ihardun izan duen familiarian jaioa, gazte zela hasi zen ofizioa ikasten etxeko tailerrean Fermin bere aita eta Antonio aitona erakusle zituela. Garai horretako otargintza lan gehienak baserrirako ziren: otarrak, artotarrak, aulkiak, eta abar. Jose Luisek etxeko tailerrean ezezik, haltzari lantegi batetan egin ohi zuen lana. Lantegia itxi zenean berriro etxera itzuli eta egun osoz esku-langintza honetan dihardu zortzi urteetan. Gaur egun otargintzarekin batera haltzari tailer batean lana egiten du.

Bere lanak kanpora saltzen hasia da, denda eta Ferien bidez.

Otros datos:

Miembro de una familia tradicional dedicada a la fabricación de cestería de castaño. Siendo muy joven comienza a aprender el oficio en el taller familiar, junto a su padre Fermín y su abuelo Antonio. En esa época casi todos los productos elaborados eran para el caserío tales como otarrak, arto-otarrak, sillak, etc... José Luis compagina este trabajo con otro en una fábrica de muebles. Esta última se cierra y José Luis vuelve junto a su padre comenzando la dedicación exclusiva a éste trabajo artesanal durante unos ocho años. Actualmente compagina esta actividad con el trabajo en un taller de muebles.

Los productos elaborados comienzan a salir al exterior promocionándose en tiendas y ferias.

GAZTAIN ZUMITZEZKO OTARGINTZA

Sei edo zazpi urtetako gaztainondoaren txaraz baliatzen da otargilea bere lanak burutzeko. Abendu eta Urtarrilean moztu ohi ditu. Moztutako txarak putzuan sartzen ditu hezetasunari eutsi diezaioten.

Lanerakoan, egurrak putzutik ateratu eta labean sartzen ditu horretarako prestatutako burnikien gainean ipiniz. Labean egurra ez da lehortzen, hezetasunaren eta kearen eraginez egosi egiten da.

Bere tenplera ekarritakoan egurra bitan zatitzen du, horietariko bat labean utzi eta bestearekin zumitzak aterako ditu, hamarren bat denera. Zenbaitetan beroak berak azala erraz bereizteko lanak errazten ditu. Zumitzak aurrez aulki delakotik pasaerazten ditu zumitzak laiak eta zuzenak izan daitezten. Aulki horretan bertan prestatzen du otarraren gainaldea bilduko duen uztaia, gaztain egurrez egina hau ere.

Otarraren hondoa zumitza zabalez osatzen da. Otarrari forma beste zumitza meharragoak, iuzumitzak, bueltan-bueltan ezarriz ematen zaio, bospaseiren bat buelta emanaz. Zumitzak luzeegiak direnean bere baitan biltzen dira berriro.

Azken lana emakumearen esku gelditzen da. Josizumitzak uztaia josten du eta hondoko hutsuneak betetzen.

CESTERIA DE FLEJE DE CASTAÑO

La materia prima empleada por el "otargile" es el primer brote del jaro, "txara", de castaño de seis o siete años. El corte se lleva a cabo en los meses de diciembre y enero. Después de talados los jaros se dejan en el depósito de agua, "potzua", para su conservación en verde, "ezia", y evitar que se sequen.

Una vez fuera del depósito, se mete la madera en el horno y se coloca sobre unos hierros o morillos que la aíslan de la base. El leño expuesto al fuego no se seca, sino que, por su misma humedad y la acción del humo, se cuece.

Cogido el temple, el artesano procede a partir la leña en dos. Una mitad se vuelve a dejar en el horno y con la otra parte se sacan los flejes, "zumitzak", que vienen a ser unos diez, y que, a determinada temperatura se les desprende la corteza con facilidad. Estas tiras, para dejarlas listas para el empleo, se pasan por el "aulki", con el fin de eliminar las deformidades propias de la madera. Es en este "aulki" donde el artesano prepara el aro, que es también de castaño y sirve de remate o acabado de la parte superior de la cesta.

Con las "zumitzak" anchas o "saietzak", se hace la base del cesto, a la que se le da forma deseada por medio de cinco o seis vueltas de tiras estrechas, "iuzumitzak", entrecruzadas. Los flejes sobrantes se recojen hacia adentro y se introducen entre los entretrejidos.

La última labor está reservada a la mujer, en la que por medio de unas tiras finas, "josizumitzak", se cose al aro y se cierran los pequeños huecos de la base.

Artisauak / Artesanos:
JOSE LUIS ALVAREZ
eta JAVIER MURILLO

Jaiotegunak: / Fechas de nacimiento:
1959, Apirilak 18 - Iruñea
1955, Maiatzak 15 - Murtxante (Nafarroa)

Helbidea: / Domicilio:
Tailerra: San Antón Kalea, 57 - 1.º
IRUÑEA (Nafarroa)

Telf. 22.10.66



Otros datos:

Javier: Siempre fue aficionado a los trabajos artesanales. Tras varios años en diferentes oficios, termina iniciándose en el modelado del barro. Esto le lleva hacia la artesanía y el moldeado del cartón de manera autodidacta.

José: Los últimos cinco años ha trabajado dedicándose a la guarnicionería, heredada de su padre Francisco, de quien aprende el oficio. Durante muchos años se dedica a la guarnicionería tradicional, caballerías, atalajes, etc... pero lo abandona al sufrir las transformaciones y desarrollo de las zonas rurales, con la consecuente disminución de la demanda de este tipo de artesanía, teniendo que dedicar al trabajo de lonas, etc...

En 1987 se junta con Javier, por su afición a la pintura, y comienzan a participar en ferias y exposiciones. También venden sus productos a través de tiendas de regalos.

MACHE PAPERAREN ESKULANGINTZA

Eskulangintza moeta hau arrakasta handikoa da Levante eta Catalunya. Nafarroan ere zerbait bazela esan daiteke, gizandi eta buruhaundiak kontutan hartuz...

Lehendabizi aurrelana irudikatzen da eta pintatzen. Ondoren, buztinezko irudia egiten da, benetan lortu nahi den irudiaren neurrira. Ondoren igeltsuzko moldea, edota beirazko fibrazkoa egiten da. Ondoren moldea kendu eta barnetik kartoi hezea itsasten zaio. Zenbaitetan, irudiak horrela eskatzen duenean, molde bat baino gehiago erabiltzen dira lanak atalka eginez. Kartoi lehertzen denean moldea atera eta pieza itsasten dira. Ondoren, ez beti, kartoi bera findu egiten da. Azkenik pieza pintatu eta dekoratu egingo dute.

ARTESANIA EN PAPEL MACHE

Este tipo de artesanía es de gran tradición en Levante y Cataluña, aunque en Navarra también existía, al menos de uso, una tradición artesana a la hora de elaborar los gigantes, zaldikos, etc...

El proceso se inicia con un boceto pintado, que más tarde se transformará en un modelado de barro, como la figura que se quiere hacer. Más tarde se hace un molde de escayola o de fibra de vidrio de la figura elegida. Después, se quita el molde y se va moldeando con cartón húmedo la parte interior hueca. Este proceso hace que las figuras tengan que dividirse en varios moldes, dependiendo de la complicación de las mismas. Una vez secado el cartón, se saca el molde y se unen las piezas con cola de contacto. El siguiente paso, a veces, es el cascarillado o acabado que le da finura al cartón. El proceso finaliza con el pintado y decorado de la pieza.

Aurkezpen gisa:

Javier betidanik izan da eskulangintzaren zale. Hainbat ofiziotan lana egin eta buztin lanetan hasten da. Honek eskulangintzaren bideetatik abiarazten du eta, bere kabuz, kartoiaren modelatura iristen.

Josek azken bost urteetan ugalgintza lantzen du Francisco bere aitak erakutsitako ofizioa. Urte luzetan ohizko ugalgintzari ekiten dio, nekazariak lanerako ezinbestekoak zituen lanak burutuz. Nekazaritzan azken urteotan eman diren aldaketek ugalgintza lana urritu egin dute eta artisauak beste ogibideek landu behar izan ditu.

Pintura afizioak erakarrita, 1987 urtean Javierrekin elkartzten da eta lanak feria eta erakusketetan agertarazten. Bere lanak pitxi-dendetan ere saltzen dituzten.

Artisaua/Artesano:
HELENA JIMENEZ DE ABERASTURI
APRAIZ

Jaioteguna: / Fecha de nacimiento:
1971, Maiatzak 3

Helbidea: / Domicilio:
Zurriola Pasealekua, 12
DONOSTIA (Gipuzkoa)

Telf. 943-28.90.10



Aurkezpen gisa:

Lehenago enkoadernatzaile izandako Blas Capa jaunarekin hasi zen ikasten 1988an.

Txertoa Argitaldarian egiten du lana eta enpresa honentzat bideratzen ditu bere enkoadernazio saioak.

Lan honetatik bizi da gaur egun.

Otros datos:

Comienza su aprendizaje en 1988 en San Sebastián con D. Blas Capa que antes había sido encuadernador.

Trabaja en la editorial Txertoa como encuadernadora y es en ésta empresa donde elabora todos sus trabajos.

En la actualidad vive de este trabajo.

ENKOADERNAKETA ENCUADERNACION

Enkoadernaketa lana ez zen era biltzen greko eta erromatarrek liburu karratuak "Códices edo libelli" deituraz ezagunak, asmatu zituzten arte. Lehenago liburua papiroz edota larrukiz osatua egon ohi zen eta biribildua. Puskak banan elkartuz, denera 25 metroren luzera eta 70 zentimetroren zabalera hartzen zuten, "bolumen" deituraz ezagutu-tako piezak osatuz. Kodizeek enkoadernaketa lana eskatzen zuten, hots, testu edo liburu bereko orriak biltzea, hurrenez hurren jartzea, josi edo itsastea ertz beretik, azal edo kubierta biren babesa dutela. Bizantindarren garaia iritsi zen arte azalak egurrezko, marfilezko edo bitxiz osatutako metalezkoak izan ohi ziren. Sinesgabeko Erromaren garaian menpeko jendeek egiten zituzten enkoadernaketa lanak kopistena ere egiten zuten bezalaxe.

Enkoadernaketaren aberatsaren emana IV. mendean nagusitu zen. Liburu bitxiak estaltzen zituzten haiek aberatsak eta koste haundikoak ziren, eskultura eta harri-bitxi lana, urre-zilarrez hornitua, gehiago zen egiazko enkoadernaketarena baino.

Erdi Aroan Europako erreinuek Konstantinopla edo Bizanzioko enkoadernaketa estilo eta haundi uki-tua jarraitzen ahalegindu ziren.

El arte de la encuadernación no existió hasta que los romanos y griegos inventaron el uso de los libros cuadrados, a los que llamaron "códices o libelli". El libro, anteriormente estaba constituido por un rollo formado con tiras de papiro o pergamino unidas por los extremos, cuyas piezas llegaban a alcanzar 25 m. de largo por 70 m. de ancho y se llamaban "volumen".

Con los códices nació la encuadernación, cuyo objeto es reunir en un solo cuerpo las hojas de un mismo texto o libro, cosidos o pegados a un lomo y resguardadas entre dos tapas o cubiertas. Estas en aquellas épocas y hasta entrado el periodo Bizantino, eran dos planchas de madera, marfil o metales preciosos. En la Roma pagana la encuadernación era practicada por los esclavos, que a la vez eran también copistas.

El lujo más extraordinario en las encuadernaciones comenzó a reinar en el siglo IV. Las ricas y costosas envolturas con que se guarnecían los libros preciosos, son más bien trabajos de escultura u orfebrería que verdaderas encuadernaciones.

Durante los primeros siglos de la Edad Media los principales reinos de Europa imitaron el estilo y la suntuosidad de las encuadernaciones de Constantinopla o Bizancio.

Artisaua / Artesano:
CRISTINA ARACAMA
MARTINEZ DE LA HIDALGA

Jaioteguna: / Fecha de nacimiento:
1960, Ekainak 13

Helbidea: / Domicilio:
Samaniego Kalea, 6-4.º ezk.
Gasteiz (Araba)

Tel. 24.23.45



Aurkezpen gisa:

Fournier lantegian enkoadernatzaile bezala ziharduen J. M. Iñiguez jaunarekin hasi zen 1980an lanbidea ikasten.

Gaur egun Gasteizko Lanbide Hezketarako Egokitua Ikastetxeko irakasle da enkoadernaketa gaian.

Norbanakoek erabili beharreko lanak, edota enkarguz aginduak, egiten ditu.

Otros datos:

Se inicia en la encuadernación en 1988 con D. J. M. Iñiguez Calzada que trabajaba en la empresa Fournier de encuadernador.

En la actualidad es profesora de encuadernación en el Centro de Formación Profesional Adaptada de Vitoria.

Solo encuaderna para uso personal o sobre encargo.

ENKOADERNAKETA ENCUADERNACION

Esan izan dá enkoadernaketaren haseran monastegietan bakarrik egiten zela, esku-izkibruen kopiak lehen mende haietan egiten zen bezalatsu. Antzinetik datorren enkoadernaketa lana betidanik, orain bezala, zenbait artisaurentzat ogibide lana gertatzen zen gutxi batzuentzat baino izango ez bazen ere.

Italia izan zen Pizkunde garaian Europan zehar enkoadernazio ederez osatutako liburuak, urrez, larrukiz eta abarrez estanpatuak, zabaldu zituen herrialdea. Garai hartako gerrateek artisautza lanbide honen berri zabaltzeko egokiera eskaini zuten, asko bait ziren liburu eta jakintzaren gose zebiltzan gudalburuak.

Egun enkoadernaketaren indarra Londonen industria saileko arte erakusketari aitortu zitzaion lekutik dator. Luxozko lanetan erdi aroko enkoadernazioak, Bizanzion jasorikoak, imitatzeari ekin zioten bezala, beste lanetan, industria indartsuaren eskutik zetozenetan, joera eta moda berriak jaso ziren. Indiaren edo zuntzako oihalen erabilerak, papera baino sendoagoak eta larria baino merkeagoak, Liburugintzan molde berriak ekarri zituen artisautza lanbide berriari bide emanez.

Se dice que en un principio la encuadernación debió ser exclusiva de los monasterios, como en cierto modo lo había sido la copia o reproducción de manuscritos, durante los primeros siglos. Lo cierto es que el ramo de la encuadernación fue desde antiguo practicado, lo mismo que ahora, como un elemento de subsistencia por artesanos particulares, aunque en escaso número.

Italia fue el país que propagó en Europa los primeros libros de bellas encuadernaciones del Renacimiento con adornos estampados en oro, pieles, cueros, etc... Las guerras de aquella época esparcieron los conocimientos sobre esta artesanía gracias a que hubo muchos oficiales con inquietudes intelectuales.

La encuadernación moderna surge con el empuje que dio la primera exposición londinense a las artes industriales. Mientras en la elaboración de obras de lujo se imitó la encuadernación bizantina medieval, en la gran industria se tuvo más bien tendencia a los gustos de las nuevas modas. El empleo de las indianas o telas con fibras de consistencia superior a la del papel y de precio inferior al del cuero, hizo que el hornato del libro desdijese el modo de ser del mismo libro y trajo todas las extravagancias y cambio de gustos en esta artesanía.

Artisauak/Artesanos:
CARLOS SAN MARTIN
eta FERNANDO RAMAJO

Jaioteguna: / Fecha de nacimiento:
1955, Martxoak 9 - Irun (Gipuzkoa)
1948, Abustuak 26 - Cáceres

Helbidea: / Domicilio:
Estudio: Donostia Kalea, 4-3.^o
IRUN (Gipuzkoa)

Telfs. 61.72.26 - 62.19.23

Aurkezpen gisa:

1962 urtean ekiten dio Carlosek, Marta Iturrioz irakasle duela, ondorengo hiru urtetan ofizioa ikasteari. Hamabost urte zituen Porcelanas Bidasoa lantegian lanean hasi zenean. Aprendizajearen hiru urte egin eta gero, dekoraziozko saillean arituko da dekoratzaile eta dibuxo lanetan. Lantegiko maixu, aldi berean pintatzaile zena, Antonio Mateo jauna izan zuen.

Irungo Lanbide Eskolan 11 urte zituela sartu zen Fernando bere ikasketak egitera Godofredo Buenos Aires maisuaren gidaritzapean keramikaren lantegian. Kinde lantegi batean hasiko da lanean 14 urtetan. Handik bi urtera Porcelanas Bidasoa lantegira joko du dekoraziozko saillean eta berorren erabilpen industrialean lan eginez. Bi artisauon lanak osagarri dira beraz, enpresa barruan. Lehenen aipatuak diseinu lanak burutzen ditu eta bigarrenak bere aplikazioaz arduratzen.

Eskulangintza lanak erakusketetan, ferietan, arte galerietan eta zuzenean jasotako enkarguz, saltzen dituzte. Lehen erakusketa Hondarribian egin zuten 1966 urtean.



Otros datos:

Carlos: En 1962 comienza un cursillo de tres años con Marta Iturrioz. A los 15 años entra en la empresa Porcelanas Bidasoa. En esta empresa pasa tres años de aprendiz y ocupa seguidamente, un lugar en la sección de decoración. Allí trabaja de decorador y diseñador de los dibujos. Su maestro fue D. Antonio Mateo, maestro decorador de la empresa y también pintor.

Fernando: A los 11 años ingresa en la Escuela Profesional de Irún en la especialidad de cerámicas con el profesor Godofredo Buenos Aires. A los 14 años comienza a trabajar, como aprendiz, en una fábrica de quinqués. Con 16 años pasa a trabajar a Porcelanas Bidasoa, en la sección de decoración y su aplicación industrial.

Los dos trabajan en equipo y sus trabajos son complementarios dentro de la empresa. El primero se dedica a diseñar y su compañero a su aplicación.

Venden sus productos en exposiciones, ferias, galerías de arte y encargos personales. La primera exposición la tuvieron en 1986 en Fuenterrabía.

PORTZELANAREN DEKORAKETA

Portzelana hotza bera Erdi Aroz geroztik latinetik bueltan sortutako hizkuntzen baitan kokatu behar da. Badirudi haseran maskor edo nakarrez landutako piezak zirela, beharbada perla gisako gain azalak portzelana izanez ezagutzen zen maskor txipriarraren distira oroitarazten zien. Portzelana hitza bera txerri txikitxotik hartua zuten, forma zela eta horrela gogoan zutelako. Marco Polok 1298an Txinako narrazioak idazterakoan izen horrenkintxe bataiatu zuen txinar portzelana bezala ezaguna dena.

Portzelana egiteko buztinak, har-kaitz puskekin nahastuz, silikato konplexu guztiak nolnahi ere, prestatzen dira. Buztinak ahalik eta toska egokienak aukeratzen dira, zeinak Txinan kao-lin (goi gailurra) izenez ezagunak bait ziren, ateratzen zuten kokagunea gogoraraziz.

Portzelanazko dekorazioa aurre lana eskatzen du, hots, diseinua eta dibuxua piezaren formari eta izaerari egokitu egin behar zaizkio. Dekorazioa hautatu eta gero piezan itsasten zaio, batzutan zuzenean landuz, bestetan pikatutako paper bejetalean karbontziloa erabiliz dekorazioaren marra nagusienak fin-katzen dituelarik. Naturak, loreak, gertaera zenbaitek eta abarrek eskaintzen dute dekoraziorako motiboa. Guzti horietan artistaren eskuak aginduko du. Pintatu eta gero 800 gradutako labean sartzen da pintura beira dadin. Urrezko dekorazioa era berean egiten da. Urrea beste elementuekin nahasitako pasta bezala saltzen da. Piezaren gainean nahi den lodieraz marraztu eta labean sartzen da. Gainontzeko osakinak desegin egiten dira eta urrea bakarrik gelditzen.

DECORACION DE PORCELANA

La palabra porcelana hizo su aparición en el flujo de las lenguas del idioma latino durante la Edad media. Al principio parece que se aplicó a piezas artísticas trabajadas de concha o nacar, evidentemente porque su superficie perlina les recordaba el brillo de la concha ciprina, llamada por los italianos porcelana (puerto pequeño, a causa de su forma). Cuando Marco Polo publicó en 1298 su narración sobre China, dió este nombre a lo que hoy conocemos como porcelana china.

La elaboración de esta porcelana se inicia con el preparado de las mezclas de varias arcillas naturales y rocas, todas las cuales son silicatos complejos. En cuanto a las arcillas se procuran las más puras y las más blancas, a las cuales en China se les llama kaolin (alta cumbre), del lugar del que se extraían.

La decoración de la porcelana tiene un paso previo como es el adaptar a cada pieza el tipo de dibujo que se acople a la forma y motivos de la misma. Una vez elegido el motivo se inicia el proceso de decoración que puede ser directamente sobre la pieza o a veces, ayudándose de un esbozo hecho sobre papel vegetal picado, sobre el que se pasa un carboncillo que va dejando las líneas del esbozo. Estos dibujos suelen tomarse de la naturaleza, de escenas de género, flores, etc... En todos ellos el resultado depende de la mano del artista. Una vez pintado se introduce en el horno a 800 °C para vitrificar la pintura. La aplicación del oro se hace de la misma manera. El oro viene en forma de pasta mezclada con otros elementos. Se aplica a la pieza con la densidad deseada y se mete al horno, donde pierde las impurezas, quedando como elemento único.

Artisaua / Artesano:
JUAN MORALES GOIKOETXEA

Jaioteguna: / Fecha de nacimiento:
1932, Apirilak 5 - Obanos (Nafarroa)

Helbidea: / Domicilio:
Lekuona Pintorea, 2-2.º A
TOLOSA (Gipuzkoa)

Telf. 65.08.56



Otros datos:

Hace quince años se inicia en el mundo artesanal de la fabricación de cesta de remonte en Galarreta, con Pablo Izagirre de San Sebastián. Más tarde, después de 5 años, pasa a otra empresa de Gernika donde trabaja en la confección de cestas-punta. Con el paso del tiempo y de manera autodidacta comienza a trabajar en la manufactura de pelotas, en Tolosa. El tipo de pelota es para utilizar con herramienta (pala, xare, pala corta, larga, etc...).

Hoy vive de la venta de estos productos que generalmente, lo hace por su cuenta, a través de una red de clientes. Es el único artesano que confecciona la pelota para el juego de rebote.

Aurkezpen gisa:

Duela hamabost urte hasten da erremonterako saskiak egiten Galarretan Donostiako Pablo Izagirre lagun duela. Handik bost urtera Gernikako enpresan punta-saskiak egiten jarraituko du. Denbora joan ahala, bere kabuz, pilotagintzari ekingo dio Tolosan. Ez dira eskuzko pilotak izango, palaz, sarez eta abarrez jokatu beharrekoak baizik.

Gaur egun hontatik bizi da, bere kontura, erosleen esku salgai ipiniz. Erreboteko pilotak beregan du egile bakarra.

LARRUZKO PILOTAK

Pilotagile bakoitzak bere gisara, isilgordean bezala, egiten ditu gisa honetako pilotak.

Lehendabizi pilotaren gunea osatuko duen materiala prestatuko du. Gai malgua, erremintaren kolpeari bere onera etorritz erantzungo duena, behar du izan.

Gunea osatu eta gero, artilez estaltzen du. Pilotaren neurrira ekarri duela antz ematen dionean, hari fin gogorrez, edota kotoi finez, indarrean bilduko du. Jokorako behar duen trinkotasuna lor dezan, hala-koa behar bait du palaz nahiz saskiz jokatzeko, artilea orratz sendoz, ahalik eta sakonenera joz, josten da. Puntada hauek artilea gogortu eta trinkotu egiten dute.

Ondoren ongi biribiltzen da. Prentsa barruan sartu eta presiopean eduki ohi da behar duen forma lor dezan arte.

Larrua arreta haundiz egozten zaio. Lehendabizi larrua ebakitzen da, zortzi zenbakiaren formaren antzeko bi puskatan, biak pilotaren gainaldean ongi egokierazteko moduan. Inoiz urpean sartzan da eta minutu batzutan bertan busti ondoren, lehortzerakoan labur-ttipitzera-koan, indarrean estutu dezan.

Zaila baino zailagoa da larrua joste, esku aparta behar da, eta gutxi dira errebote eta pasaka pilotak egiteko gai direnak. Orratza larrukiaren baitan sartu, haritik tira, bi ertzak egokitu eta kanpotik haria eta puntua ikusten ez dela utziko du.

Azkenik, pilota larruz inguratua dagoenean, eta larrua erabat lehortua, bi harri lau leunen presiopean hartzen da pilota eta berriro moldean sartzan, lakarrak kenduz, erabat leundurik gera dadin.

PELOTAS DE CUERO

Cada artesano emplea procedimientos personales que guarda como un secreto precioso.

Primeramente se introduce un núcleo de materia elástica para establecer el efecto de reacción que se le dará al ser golpeado por una herramienta deportiva.

Terminado el núcleo, se reviste de lana. Cuando se le ha dado el volumen requerido, antes de forrarla, se envuelve con hilo o con algodón fino muy tirante. Para conseguir un proyectil duro, como los que requieren la pala y la cesta, se cose la lana con una aguja fuerte hasta la mayor profundidad posible. Estos puntos retienen y afirman la lana y le dan mayor resistencia.

Luego se redondea introduciéndola en un molde y comprimiéndola en una prensa durante el tiempo necesario para darle forma.

El forrado debe hacerse con el mayor esmero. Se empieza por cortar el cuero en forma de ocho, con dos trozos, obteniéndose una costura muy regular. A veces se suele sumergir en agua durante algunos minutos para que luego al secarse, se contraiga y adhiera a la pelota apretándola con fuerza.

El cosido es muy difícil de hacer, exige mucha habilidad y hay pocos fabricantes que lo hacen (para pelotas de rebote y pasaka). Se ejecuta introduciendo la aguja en el espesor, tirando del hilo y juntado los labios de los dos cueros que se cosen sin que por fuerza se adviertan ni el hilo ni el punto.

Finalmente cuando la pelota está forrada y el cuero está seco, se le hace rodar entre dos grandes piedras planas y lisas para luego pasarla por un molde donde se redondearán una vez más y le desaparecerán las asperezas.

Artisauak / Artesanos:

IDOIA SEIJO
YON ANDER BASTERRETxea
eta GORKA BASTERRETxea
("MENINA" Taldea)

Jaioteguna: / Fecha de nacimiento:

1962, Otsailak 18
1959, Urriak 3
1959, Urriak 3

Helbidea: / Domicilio:

Kale nagusia, 24
HONDARRIBIA (Gipuzkoa)

Telf. 64.49.99



Aurkezpen gisa:

Idoia artean oso gazte zela hasi zen eskulangintzan. Batxilergoa amaitu eta gero Madrida doa Jacinto Alcantara-ren Keramikazko Udal Eskolan ikastera. Han Yon Ander ezagutzen du eta Euskadira itzultzen dira. Arantzasuko elizpean arituko dira Nestor Basterretxearekin batera.

Geroxeago Barcelonan txontxongilo ikastaro bat egiten dute, harien eta mugimenduen erabilera menderatuz. Handik itzuli eta horretan dihardute beste zenbait lan ere utzi gabe. 1988 urtean "Menina" taldea sortzen dute beste hirugarren batekin, Gorka Basterretxearekin.

Gaur honatik bizi dira, txontxongiloak landuz eta salduz, bai bere tailerrean edota Paris, Madrid edo Bartzelonako zenbait dendetan.

Otros datos:

Idoia comienza desde muy joven a tener afición a los trabajos manuales. Después de hacer el bachiller va a Madrid a la Escuela Municipal de Cerámica de Jacinto Alcántara. Allí conoce a Yon Ander y vuelven a Euskadi, donde trabajan en la cripta de Aránzazu junto a Néstor Basterretxea.

Más tarde van a Barcelona a un curso sobre la confección de marionetas, manejo de hilos y movimientos. Vuelven y compaginan ésta afición con otros trabajos. En 1988 forman el taller "Menina" con la inclusión en el grupo de Gorka Basterretxea.

En la actualidad viven de esta artesanía dedicándose a su manufactura y venta, tanto en el propio taller como a través de algunas tiendas de París, Madrid o Barcelona.

TXONTXONGILOAK MARIONETAS

Pertsonaiaren buruaren moldeak damaio lanari hasera. Egurrezkoa da, eta bere izaeraren arabera jantzi ohi da. Batzutan enkarguz jasotako lanetan aurrez irudikatutako asmoaren arabera lantzen da. Pertsonaiari barne hezurdura egokitzen zaio, zurez landua, moketa biribilduz osatua eta artikulazioak bideratzeko genuak dituela. Egitura honetan hariak bilduko dituen gurutzeta ere gogoan hartzekoa da. Egituraren zenbait tokitan, belaur, ipurdi, oin edo beste tokiren batetan, astunagoa izan dadin, berun puskak itsasten zaizkio.

Barnetik doan armazoa kanpokaldetik jantzi egokia darama. Artisauak diseinatu eta eskuz josi dituen jantziak izan ohi dira.

Era askotako pertsonaiak izan daitezke, hasi euskal folklorean ezagunak diren zamaltzain, ttuntturro eta abarretik Samurái japoniarretaraino, tartean gizartean bizi diren pertsonaiak irudika daitezkeelarik. Errealitatetik ahalik eta gertuen aurki daitezten eskatuko zaie, jantzi, ezaugarri, kolore eta abarretan.

El proceso se inicia con el moldeado de la cabeza del personaje. Esta es de madera y según su aspecto se le viste de una determinada personalidad. En algunos casos de encargos concretos se modela ya sobre una idea prefijada. A éste personaje se le acopla el armazón interior o esqueleto articulado, fabricado en madera, con moqueta enrollada y encuadernadores como articulaciones. También se incluye, dentro de éste armazón, la cruceta de la que penden los hilos. En algunas partes del esqueleto, rodillas, pies, culo, necesitan un cierto peso y para ello se le colocan unos pequeños plomos.

A éste armazón interior se le viste exteriormente con las ropas adecuadas. Ropas que han sido diseñadas y confeccionadas a mano por los artesanos.

Los personajes que se representan pueden ser de una gran variedad. Desde personajes del folklore vasco (zamaltzain, ttuntturro, etc...) hasta Samuráis japoneses, pasando por personajes de la vida real. En todos ellos se busca ser lo más fieles posibles a la realidad en cuanto a vestimenta, caracterizaciones, colores, etc...

Artisaua / Artesano:
M.^a EUGENIA RUIZ APILANEZ

Jaioteguna: / Fecha de nacimiento:
1948, Abuztuak 15

Helbidea: / Domicilio:
Fueros, 18-behea
(Escuela de Artesanía "Cosmos")
GASTEIZ (Araba)

Telf. 23.20.52



Aurkezpen gisa:

Gasteizen 1948an jaioa da. 1970an bertako Arte eta Lanbide Eskolan dibuxo, pintura eta keramika ikasteari ekiten dio. 1975an Gasteizko "Cosmos" artisautza eskolan irakasle. 1981 urtez geroztik antzinako portzelanazko panpinen iruditerian zehar ematen ditu ikerketa pausoak. 1982-1985 denboraldian Europan zehar argibide ugari jasotzen du idatzizko, zein grafia gisako, dokumentu ugari eskuratuz.

Gaur egun panpinez osatutako kolekzioa haziz doa, pieza zenbaiten balorea aintzat hartzekoa delarik.

Otros datos:

Nace en Vitoria en 1948. En 1970 ingresa en la Escuela de Artes y Oficios de su ciudad, donde realiza estudios de dibujo, pintura y cerámica. Desde 1975 es profesora de la Escuela de Artesanía "Cosmos" de Vitoria. A partir de 1981 sus investigaciones se centran en el tema de la reprografía de muñecas antiguas de porcelana. Durante el período 1982-85 viaja por Europa recavando información y adquiriendo una considerable documentación gráfica y escrita sobre el tema.

Es este momento su colección particular de muñecas se acrecienta con piezas de valor muy estimable.

PANPINA ZAHARREN ESKULANGINTZA

Panpina hauek ez dira 45 zentimetroz goiti egiten. Haurtxo panpinez kanpo, soina hamaika piezek osatzen dute. Aurpegi irudiaren zein eskuen prestaera mantsoa da, kontuz ibili beharrekoa. Inoiz lehengo mendeetan erabilitako teknikez baliatuko da. Moldetik ateratako portzelanazko piezari lehenik begiak zulatzen zaizkio, ahoa eta belarritarako zuloak, ondoren 1250 gradutan egosiz.

Pintaketaren hiru lanaldiei ekin baino lehen, pieza garbi garbi egiten da arreta haundiz leunduz. Lehendabizi betileak, aho eta bekainak pintatzen ditu, inoiz ilea ere bai, ondoren aurpegi osoarekin amaituz. Lan hau amaitu eta gero pieza berriro egosten da 750 gradutako labean. Labetik ongi finkatutako ezaugarri eta ñabardurak erakutsiko ditu. Lehenago egitasmo baino ez pieza nortasunaren jabe izango den elementu artistiko bilakatzen da.

ARTESANIA DE MUÑECAS ANTIGUAS

Estas muñecas no suelen exceder de 45 cms. y su cuerpo articulado, a excepción de los bebés, consta normalmente de once piezas. El proceso de elaboración de las caras y manos es lento y delicado y en ocasiones deben emplearse procedimientos que datan de siglos anteriores. La pieza de porcelana que sale del molde, a la que primeramente se abren los huecos de los ojos, la boca y agujero para los pendientes, es sometida a una cocción de 1250 °C.


Antes de iniciar las tres fases de pintado la pieza de porcelana se somete a una esmerada depuración comenzando por un bruñido minucioso. El pintado comienza por las pestañas, boca, cejas y en su caso pelo para concluir con la elaboración de la cara. Finalizada esta labor la pieza vuelve a someterse a una cocción de unos 750 °C. Del horno saldrá con sus rasgos faciales ya definidos. Es el momento en que la pieza abandona la incertidumbre del proyecto para convertirse en un objeto artístico con identidad asignada.

Artisaua / Artesano:
CORNELIO IRIBARREN ELIZONDO

Jaioteguna: / Fecha de nacimiento:
1955, Irailak 2
Urroz de Santesteban (Nafarroa)

Helbidea: / Domicilio:
Denda: Santa Maria Kalea, 9-behea
ERRENTERIA (Gipuzkoa)

Telf. 52.63.94



Aurkezpen gisa:

Batxilergoa eta U.B.I. istudiatu eta gero, Industria Injiniaritzaren bideetatik abiatzen da, baina karrera utzi egingo du. Topografia lanetan enpresa batetan ihardun ondoren soldaduzkara. Handik itzuli eta elikadura kooperatiba batean hasten da lanean eta zazpi urtetan bertan jarraitzen. Lantegia itxi eta gero, etorkizunari erantzuna emateko asmoz, baina elikaduraren eremuan, aurrez prestatuko dituen janari lantegi bat zabalitzen du.

Arlo honetan txerrikitegiaren ildotik pauso berri bat ematen du. Miarrizera jo eta René Isabal lantegian, arlo honetako benetako espezialistekin, txerriki eta antzeko produktu berrien prestatura lanak ikasten ditu.

Errenteriako dendatik bizi da gaur egun.

Otros datos:

Después de estudiar el bachiller y COU. comienza la carrera de ingeniero industrial que más tarde abandona. Trabaja durante un año en una empresa de topografía y luego va a la mili. A la vuelta trabaja en una cooperativa de alimentación durante siete años. Cuando esta empresa cierra se plantea una nueva salida dentro del campo de la alimentación, abriendo un establecimiento de comidas preparadas.

Es a partir de ese momento cuando se plantea dar un nuevo giro en el campo de la charcutería. Va a Biarritz a la empresa René Isabal, auténticos artistas en ese campo, donde aprende la elaboración de productos de charcutería.

En la actualidad vive de los beneficios que le aporta su tienda en Rentería.

TXERRIKI LANGINTA

Urdaiazpiko egosia: Haragiaren gazi maila egokia lortzean datza bertako sekreturik nagusiena. Jaki-na denez, gazitutako haragiak freskoak ez bezalako gustoa du. Gaitasun hori astebetean produktua landuz lortzen da. Denboraldi honetan txerri-azpikiak hozgailuan eduki ohi ditu.

Astebete pasa eta gero labean egosiko du zortzi orduz.

CHARCUTERIA ARTESANAL

Jamón asado: Este tiene su mayor secreto en conseguir el grado de salinidad de la carne, ya que es sabido que la carne salada es de mucho más sabor que la carne fresca. Esta salinidad se obtiene tras una semana de elaboración del producto. Durante este tiempo el pernil permanece en la cámara frigorífica.

Pasado ese tiempo se inicia el proceso del asado en el horno donde estará durante ocho horas.

AURKIBIDEA INDICE

Egitaraua / Programa..... 2

ARTISAUAK ETA LANGINTZAK

ARTESANOS Y ESPECIALIDADES

Tailaketa (Kutzak) / Talla tradicional vasca 8

Haltzarigintza / Artesanía del mueble..... 10

Gaztain zumitezko otargintza / Cestería de fleje de castaño... 12

Mache paperaren eskulangintza / Artesanía en papel mache 14

Enkoadernaketa / Encuadernación 16-18

Portzelanaren dekoraketa / Decoración de porcelana 20

Larruzko pilotak / Pelotas de cuero..... 22

Txontxongiloak / Marionetas 24

Panpina zaharren eskulangintza / Artesanía de muñecas antiguas 26

Txerriki langintza / Charcutería artesanal..... 28

Katalogo honen textoak artisau beraiek emandako berriekin osatu dira. Horrez gainera ondorengo lanak ere kontuan hartu dira:

—«Euskaldunak»,
Joxe M. Barandiaran eta besteena (4 tomo).

Los textos explicativos del presente Catálogo se han elaborado en base a los datos aportados por los propios artesanos. Además se han consultado las siguientes obras:

—«Euskaldunak»,
de Joxé M. Barandiarán y otros (4 tomos).

Argitaratzaile / Edita: EREINTZA ELKARTEA

Laguntzaileak / Patrocinadores:
EUSKO JAURLARITZA
GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA
ERRENTERRIAKO UDALA
GIPUZKOAKO KUTXA
AURREZKI KUTXA MUNIZIPALA

